



GREBA BBVAn

EUSKAL HERRIKO BBVAko LANGILEEN ERANTZUN MASIBOA KALERATZEEN ETA EREaren AURKA DEITUTAKO GREBARI

Gaur, maiatzaren 26a, BBVAk Euskal Herrian duen plantilla, BBVAren zuzendaritzak EREaren aurka deitutako grebarekin bat egiten ari da gehienbat, Katalunian eta Galizian ere grebarekin erantzuten ari diren bezala, eta neurri txikiagoan Estatuko gainerako lekuetan.

Erantzuna orokorra izan da, Gipuzkoa ia bulego guztiak itxi dira, eta gutxi gorabehera % 94,5eko jarraipena egin da, Araban %90, Bizkaia %85 eta Nafarroan %90etik hurbil. BBVAk egin nahi dituen kaleratzeen aurrean, arrakasta handia izan du lanpostu guztien defentsan parte hartzeak.

BBVAk ERE bat aurkeztu du, kaleratze kolektiboa, 3.798 familiarentzat drama bat izango dena. Hain da patetikoa gure iragana, esperientziak eta osasuna utzi dizkiogun enpresa honen egungo sentsibiltatea, eta, gainera, laster askok gure etorkizunaren zati bat ere uztea nahi dute.

Hori guztia, Bankuak irabazi handiak lortzen jarraitzen duen bitartean: 1.210 milioi euro 2021eko lehen hiruhilekoan, eta zuzendariak soldatak igotzen ari dira.

Langileen ahotsak altxatu ditugu esateko EZ diogula BBVAren EREak ordezkutzen duen aurrekaririk gabeko eraso honi, hainbeste inmoraltasunari ASKI DA esateko, gehiegikeria honetatik defendatzeko eskura ditugun tresna guztiekin, hots, GREBA eta MOBILIZAZIOarekin.

Elkartasuna agerian geratu da BBVAko lankide guztien artean, lanpostu guztiak defendatzen jarraitu behar dugu.

Harro egon gaitzke hemen gaudelako dagokiguna defendatzeko. Jarduera gelditu egin dugu gure lanpostuak baliatzeko.

Era berean, badakigu plantilla murrizteak eragin zuzena izango duela BBVAko bezero guztiei ematen diegun arretan eta zerbitzuaren kalitatean. Eskertzen dizkizuegu gure bulegoetan jasotako hainbat laguntza-keinu.

BBVAn KALERATZERIK EZ ERERIK EZ

Euskal Herrian, 2021eko maiatzaren 26an